

HABEren Zuzendaritza Batzordea

Bilera-akta.

Eguna: 2020-12-18

Hasiera-ordua: 10:00

Bukaera-ordua: 12:00

Bertaratuak

Batzordeburua:

Bingen Zupiria Gorostidi jn., Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua

Batzordekideak:

- Miren Dobaran Urrutia and., Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuordea
- Estibaliz Alkorta Barragan and., Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria
- Joseba Lozano Santos jn., Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria
- Jokin Azkue Arrastoa jn., HABEren zuzendari nagusia eta Zuzendaritza Batzordearen idazkaria
- Xabier Arauzo Uriarte jn., Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Saileko ordezkaria
- Lourdes Isart Badiola and., HABEko Hizkuntzaren Didaktikako zerbitzuko ordezkaria
- Joseba Urriz Goikoetxea jn., Araba eta Bizkaiko udal-euskaltegietako irakasleen ordezkaria
- Joseba Arbelaitz Zumeta jn., Gipuzkoako udal-euskaltegietako irakasleen ordezkaria
- Lexuri Ugarte Aretxaga and., Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria, Arabako Foru Aldundiko ordezkaria.
- Garbiñe Doval García, HAEE-IVAPEko Euskara zuzendariordea

Bertaratu ezina adierazi dutenak

- Andrés Iñigo Ariztegi jn., Euskaltzaindiaren ordezkaria
- Txomin Sagarzazu Ancisar jn., EUDELen ordezkaria
- Miren Garbiñe Mendizabal Mendizabal and., Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendari nagusia

Aztergaiak

- 1.- 2019-12-18ko bilera-akta onartzea.
- 2.- HABEko arauen garapena.
- 3.1.- 2021eko HABEren aurrekontu-proiektua: sarrerak.
- 3.2.- 2021eko HABEren aurrekontu-proiektua: gastuak.
- 3.3.- HABEren 2020ko eta 2021eko memoriak.
- 3.4.- 2021eko programaren memoria.
- 4.- Euskaltegien jarduera zenbakietan.
- 5.- Galde-erreguak.

ESANAK ETA ERABAKIAK

1.- 2019-12-18ko bilera-akta onartzea

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu eta batzordeburu Bingen Zupiria Gorostidik eman dio hasiera bilerari, eta lehenik eta behin, aurreko akta onartzea proposatu du eta onartu egin da.

2.- HABEko arauen garapena

HABEren zuzendari nagusi Jokin Azkue Arrastoak hartu du hitza.

Lehen puntuan onartutako bilera-aktan honako bi gai hauek jorratu ziren:

1.- HABEren Prestakuntza-planak arautzen zituen Agindua (2019ko abenduaren 5koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, helduen euskalduntzearen esparruan HABEk onartzen dituen prestakuntza-planen ezaugarriak arautzeko eta prestakuntza-jardueren homologazio-betekizunak ezartzeko ematen dena). Horren edukia aurreko bileran azaldu zen eta, beraz, sailburuak sinatzea eta argitaratzea falta zen.

2.- Egiaztatze gintzarako, ebaluaziorako eta ikasleei dirulaguntzak emateko arauak izan behar dituen gidalerroak zehazten zituen Agindua, 2020ko irailaren 9koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze gintza arautzen dituen, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituen. ([EHAA-2020ko irailak 28, 191. zk.](#)).

Bigarren puntuan adierazitako Agindu hori oinarri hartuta, abenduaren 9an, 10ean eta 11n hiru ebazpen argitaratu ziren:

- a) Lehenengoak egiaztatze gintzarako deialdi itxia arautzen du, euskaltegi bidez euskalduntzen ari diren ikasleei zuzendua. Aldaketa ugari egon dira (aginduarekin zerikusia dutenak).

- b) Abenduaren 10ean egiaztatze gintzarako deialdi irekia argitaratu zen, eta hor berritasun nabarmenena da urtean bi deialdi egingo direla B1, B2, C1 eta C2 mailak egiaztatzeko. Udaberriaren azterketaldi bat egingo da, eta udazkenean bestea. Aurten ere bi azterketaldi egin dira, baina udaberriko lehen deialdi hori garai bateko EGAREN ordezkaria izan zen. Aurtengo lehen azterketaldia B1etik C2ra izango da. Egutegiak ebazpenean azaltzen dira eta dagoeneko euskaltegiei bidali zaizkie.
- c) Hirugarren deialdia ordenagailu bidez mailak egiaztatzeko deialdia izango da. Honetan ere bi azterketaldi egingo dira, eta beste deialdiek betetzen ez dituzten denbora-hutsuneak betetz erabakiko dira deialdi honen tartean; azterketaldi batean maila jakin batzuk egiaztatuko dira, eta bestean, urte bukaeran, maila guztiak.

Hiru ebazpenok 2020ko irailaren 9ko Aginduaren harira argitaratu dira, eta orain bakarria falta da: hurrengo ekainerako edo maiatza-ekainerako ikasleen dirulaguntzak arautuko dituen ebazpena. Aldaketa handiak daude alor honetan. Gainera, oraindik ere beste zenbait deialdi buruzko ebazpenak egiteke daude: adibidez, euskal-etxeena, kartzetako presoena,... deialdi txikiagoak dira, nolahi ere.

Aginduaren garapenak ebazpen horiek ekarri ditu. Ebaluazioa nola egin gehiago xehatzen dute ebazpenok, betiere euskaltegien curriculum proiektua kontuan hartuz; egiaztatze gintza-prozesuetan ere aldaketak egin dira, kudeaketa bizkorragoa izan dadin, aztertzaileen artean desadostasunak daudenean eta azterketa-ereduak egiterakoan kudeaketa errazteko.

Hauxe da, beraz, agindu honek orain arte eman duena, eta horiek dira hurrengo urteei begira –2021ari begira– ekarriko dituen aldaketak.

Jarraian, batzordeburuak inork zerbait gehitu nahi duen galdetu ondoren, Gipuzkoako udal-euskaltegiaren irakasleen ordezkari Joseba Arbelaitzek hartu du hitza. Duda egiten du ea foro egokia ote den gaia azaltzeko, baina euskaltegien eta sektore publikoko euskaltegien ordezkari den aldetik, beren kezka azaldu nahi du. Hain zuzen ere, ebazpenean jasotako puntu batekin ez daude ados: ikasleen ebaluazio diagnostikoaren abiapuntua egiteko orduan, bost eguneko epea ezarri da, hau da, ikaslea euskaltegian hasi eta irakasleak bost eguneko epea izango du ikaslearen abiapuntuaren ebaluazioa egin eta Q87ra igotzeko. Labur samarra irizten dio epe horri, eta foro egokia den ala ez jakin ez arren, ez du aipatu gabe utzi nahi.

HABEren zuzendari nagusiak erantzun du esanez ebazpen mailako kontu bat dela hori, eta bere garaian euskaltegiei aukera eman zitzaiela ekarpenak egiteko. Erantzun du, ekarpenetan horrelakorik jaso ez bazen ere, orain aztertu egingo dutela kontu hori.

3.1.- 2021eko HABEren aurrekontu-proiektua: sarrerak

HABEren zuzendari nagusiak jarraitu du hizketan. Aurrekontu-igoera izan da aurten, Eusko Jaurlaritzak onartu eta Legebiltzarrerara bidali dituen aurrekontuetan zenbait igoera proposatu eta onartu egin dira, eta jarraian, garrantzitsuenak aipatu eta xehatuko dira.

Lehenik, herri-langileak euskalduntzeko sarrerak igo egin dira. Ekarpen gehiago izan dira aurten, sarrera gehiago. COVIDaren eraginez autoikaskuntzako ikasleen kopurua igo egin da (% 40ko igoera), eta, bigarrenik, taldeak antolatzerakoan, kontratuak egiterakoan, taldeek ikasle-trinkotasun txikiagoa dute eta, ondorioz, talde-ordu gehiago daude herri-langile gutxiago euskalduntzeko (gela bakoitzean ikasle gutxiago dagoelako), eta horrek 200.000 €ko igoera ekarri du.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politika Sailean ere igoera izan da, txikia bada ere. Duela hamabi urte indarrean zegoen hitzarmena berreskuratu da, sail horrekin AISA programa garatzeko (60.000 €). Lehen, HABEk hartzen zuen bere gain kostu osoa, baina orain bi sailen artean banatuko da.

Ekarpen handiena Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak egiten du, 42.400.000 € (% 7ko igoera), eta horrek hainbat ekimen garatzeko bidea zabaltzen du.

3.2.- 2021eko HABEren aurrekontu-proiektua: gastuak

Aldaketarik nabarmenena COVIDaren eraginez azterketak egiteko lokalen alokairuei dagokien gastua da, igoera nabarmena izan duelako aurten (guztira 668.500 €). Orain arte, deialdietako azterketak BECen egiten ziren (idatzizkoak), errazagoa baitzen kudeaketa, merkeagoa, baina COVIDak eragindako egoeran ikasleen garraioa saihestea edo gutxitzea bilatu da, ahal den neurrian behintzat. Horrenbestez, hiru lurraldeetan alokatu dira lokalak eta, jakina, gastua igo egin da, gela gehiago behar izan direlako.

Herri-langileen euskalduntzearen kostua ere igo egin da (sarreretan ere aipatu da igoera hori); 3.651.000 € ko gastua jaso da.

Nabarmenezko beste aldaketa bat da autoikaskuntza-sistema berria eratzeko kontratazioari dagokiona. Gaur egun BOGA erabiltzen da, baina BOGA ez da HABErena; duela urte dezente erosi ziren eskubideak, eta material hori zaharkitua dagoenez, berritu beharra ikusi da. Horregatik, urte anitzeko kontratu bat egitea aurreikusten da, eta asmoa litzateke hori bost urteko epean arian-arian jorratzen joatea. Bi milioi euro inguruko aurrekontua izango lukeela aurreikusten da, eta aurten 400.000 €ko partida xedatu da horretarako. Zein motatako plataforma, zein euskarri, ... erabakitzeko dago oraindik. Edukien lanketa ere egin beharko da, nahiz eta ikasbileko edukiak eta beste batzuk ere erabili daitezkeen; eduki batzuk gehiago landu beharko dira, eta metodologia eta formatua ere aztertu.

Euskaltegien jardueraren finantzazioari dagokionez, udal-euskaltegien kasuan % 0,9ko igoera aurreikusi da langileen soldatetan. Pribatuetan, talde-orduko dirulaguntzen modulua % 4 igoko da.

Igoera horien ondorioak aurrekontuetan jasoak daude. Konpromisozko kredituei dagokienez, gehienak ikasturteka hartzen dira; beraz, bi urtez. Aipatutako autoikaskuntza-sistema eratzearena da luzeena.

3.3.- HABEren 2020ko eta 2021eko memoriak.

HABEren egiteko nagusien artean hauek aipatu genitzake: materialak diseinatzea, irakasleen prestakuntza burutzea eta curriculumaren garapena eta formazioa, egiaztatze-gintza-prozesuak burutzea eta dirulaguntzak ematea. Baina jarraian, laburbiltzearen, berritasunak bakarrik aipatuko ditugu.

2020. urteko memoria

2020ari bagagozkio (zehaztu egin behar da agian gauza batzuk urtarrilean amaituko direla, eta ez abenduan), HEOCaren dokumentua gaurkotu egingo da, 2020ko irailean argitaratutako Aginduari jarraikiz –euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze gintza arautzen dituen—. Dokumentu hori inprentan dago, eta bertatik atera eta gero, banatu egingo da.

Materialgintzari dagokionez, B2 bi zatitan banatu da: B2.1 eta B2.2, eta liburuan –paperean– nahiz webgunean argitaratuko dira.

Jardun biko ikastereduaren oinarri metodologikoa adostuta, Bagoaz materiala garatu da (B1 maila).

Bestalde, EHUREkin bi hitzarmen sinatu dira 2020an:

1.- Lehenengoa Hezkuntza Fakultatearekin: xedea da HABEren corpus osoa HEOCaren mailen arabera sailkatzea, material horiek guztiak unibertsitateari eman eta digitalizatzea, bai idatzizko dokumentuak eta bai ahozkoak ere, eta horiek prozesatzea, gero sistemak sailka eta adieraz dezan zein mailatarako den egokia testu hori. Egun hori dena eskuz egiten da. Bekadun bat kontratatu da lan hori aurrera eramateko, eta euskaltegiei lana erraztuko die asko.

2.- Beste hitzarmena EHUKo Euskara Institutuarekin sinatu da. Euskara normalizatzeko bidean irakasleak lanbide honetara erakartzea eta haien prestakuntza indartzea da xedea. Horretarako EHUn Master bat sortu da.

Berdintasun-atalari dagokionez, genero-berdintasunari buruzko txosten ugari egin da, Agindu berri horien gainean genero-berdintasunari buruzko txostenak egin behar zirelako, eta aldaketak egin dira, horiek oinarri hartuta. Berdintasun-atala berria da, 2018an sortua, eta 2019an abian jarri eta gero, 2020an txosten ugari egin dira.

Euskalduntzeko sektorearen finantzazioari buruz, kontu garrantzitsu bat aipatu behar da: hain zuzen ere, martxoan egin zen euskaltegien aurrez aurreko jardueraren itxiera. Horrek aldaketa handiak ekarri zituen, ikasle askok etxetik ikasi behar izan zutelako eta irakasle batzuek etxetik edo lantokitik irakatsi behar izan zutelako. Aldaketa handiak ekarri arren, erantzuna ona izan da oro har. Ikasleen batez besteko adina 40 urtekoa bada ere, gero eta gehiago dira bi muturretako ikasleak, oso gazteak edo oso zaharrak, eta, beraz, batzuk ez dira hain ongi moldatzen teknologia berriei. Hor ere HABEK badu zer egin.

Uda iritsi zen, eta ez zen hondamendirik gertatu. Aurrez aurrekoak egin ziren, distantziak, osasun-neurriak, protokoloak... betez. Taldeak sortu ziren eta ongi aritu dira, urtea ez da txarra izan eta hurrengo urteetarako itxaropentsu daude euskaltegiak. Teknologia indartu egin dira, plataformak areagotu, baina ikasleen gehiengoak aurrez aurreko klaseak nahiago ditu oraindik.

COVIDaren eraginez galtzaile handienak barnetegiak izan dira, logelak ezin izan direlako ikaslez bete prebentzio-neurriengatik. Barnetegiak dirulaguntzak jasotzeko irizpidea pentsioak dira, eta beraz, jasoko luketen galera ekiditearren, deialdietan horri aurre egiteko neurriak hartu ziren. Ikasturtea ondo bukatu da, eta aurten ere neurri horiek erabiliko dira.

Egiaztatzegintza-prozesuak abenduan abiatu ziren eta bete-betean harrapatu zituen pandemiak. Bi deialdi egitea zen asmoa, eta gainera lan-eskaintza publiko ugari ere abian zeuden. Ziurtagiriak lortzeko ikasleek egindako presioa zela eta, asmoa zen bi deialdiak burutzea, izan ere, deialdiak atzeratzeak urtetik urtera arazoak dakartzalako. 1. deialdia atzeratu eta berrabiarazi egin zen, udaren bueltan egin zen idatzizko proba, ahozko probarako denboraz larri, eta 2. deialdirako ere larri. Horregatik, ahozko azterketan euskaltegiek emandako nota konbalidatzea erabaki zen, udaberriko deialdia betiko daten barruan bukatu ahal izateko. Gainera, lehen EGA zen deialdia egin beharra zegoen, eta deialdi itxia ere bai. Egin ere egin ziren, eta bigarren deialdia ere egin da, arazo larririk gabe; emaitzak bilera honen data berean argitaratu dira.

Aurtengo beste berritasun bat ordenagailu bidezko egiaztatzegintza-sistema (HOBE) izan da. Ikasle guztien % 5ek, gazteak denak, sistema honen alde egiten dute, gero eta gehiago. Kupo hori HABEk ezarri behar izan du, ordenagailuak behar direlako, alokairuak, muntaia,... eta gainera, ikasleek era mailakatuan egin behar dute sistemarako sarrera, bestela EJIEn sistema blokeatu egiten baita (hori C1 deialdian gertatu zen BECen, 160 lagunekin). Asmoa da etorkizunean ikasleei urtean zehar aukerak ematea, sistema hau erabil dezaten.

2021. urteko memoria.

Lehenik, Europako beste hizkuntzen irizpideekin alderatu nahi dira ebaluazio-irizpideak, HABEn bertan eta bekadun baten lana baliatuta.

Maila guztietako portfolio errealak nahi dira irudikatu, mailaz maila, laginak erabiliz, ezaugarriak azaleratuz, ereduak eginez portfolioen inguruan.

HEOCaren maila bakoitzerako azterketa-ereduak aukeratu nahi dira herritarrei informazio gehiago emateko.

Bigarrenik, ikasmaterialen gaia dago. B2.2 mailarako materialen aurkezpen-lanak egingo dira, eta C1erako egitasmoa diseinatu eta garatu.

A1 eta A2 mailetarako ikastaro digitalak garatuko dira 2021ean.

Azkenik, berdintasunaren esparruan, HABEn bertan plan batzuk aurrera doaz eta euskaltegien genero-ikuspegiaren diagnostikoa ere egingo da, nahiz eta legez euskaltegi batzuk bakarrik dauden derrigortuta plana egitera. Ez da plan sakona izango, azalekoa baizik, baina egoeraren argazkia emango du.

3.4.- 2021eko programaren memoria

Puntu honetan HABEren adierazleak eta magnitudeak jasota daude:

Puntu esanguratsuenak aipatzearen, hauek zerrenda daitezke: ikasleen datu-makroak, zenbat ikasle espero diren, zenbat azterketa egingo diren, zenbat material egingo diren unitateka,....

Ikasleen datu makroei buruz, herri-langileen euskalduntze-datuak jaso dira (IVAP, Irale, Hezkuntza Saila, Justizia, Lanbide, EAeko kanpoko langileak, AISakoak).

Finantzazioari dagokionez, zenbakiak ere jasota daude: egungo ikasleak (urriko datuak, ikasturteko ikasle guztien % 80 dira) eta gero urte osoan izango direnak (% 20 gehiago izaten dira).

Aurten 20.000 bat azterketari aritu dira, eta hurrengo urtean 26.000-28.000 azterketari izango direla aurreikusten da (COVIDaren eragina zein izango den ez dago jakiterik). Aztertzaileak, aldiz, euskaltegiako irakasleak, 700 bat espero dira.

Bukatzeko, bakarrik aipatu behar da beste hainbat eta hainbat datu jasotzen direla, adibidez HABEren web orrira egiten diren bisitak, beste batzuekin batera kontsultagai daudenak.

4.- Euskaltegien jarduera zenbakitan

HABEren zuzendari nagusiak 2019-2020ko datuak aipatu ditu lehenik. Datuok lurraldeka, euskaltegi motaren arabera (publikoak, pribatuak, autoikaskuntza-zentroak) eta ikastereduaren arabera (aurrez aurre, autoikaskuntza, jardun bikoak) sailkaturik agertzen dira, urte-hasierako datuak (2019ko urrikoak) eta ikasturte-amaierako datuak. Ondoren dirulaguntzen eta kitapenen datuak ageri dira sailkaturik. 2019/20 ikasturtean guztira 33.374.000 €ko dirulaguntzak eman ziren, eta 32.924.000 €ko kitapena egin zen, 300.000 € gutxiago, beti egoten baita galeraren bat kitapenean.

Hurrengo orrialdean 2020/21 ikasturteko datuak jaso dira. Aurreko ikasturteko era berean xehatu dira datuok eta, gainera, aurreko ikasturtearekiko aldea ere jaso da. Ikasleen artean % 16ko jaitsiera izan da aurreko ikasturtearekin alderatuz, matrikulak % 14 jaitsi dira eta talde-orduak % 6. Ikastereduen araberako sailkapenari dagokionez, aurrez aurrekoa % 23 jaitsi da, autoikaskuntza % 14 eta jardun bikoak %5 igo da. Guztira % 16 jaitsi da. Diru-esleipenean ez da oraindik kitapenik egin, 35 milioiko deialdia egin da, bi milioi gehiago aurreko deialdiarekin alderatuta. Gaur egun, gutxi gorabehera, % 10eko jaitsiera izan du ikasleen kopuruak, autoikaskuntza igo egin da, eta jardun bikoak ere igo egin da zertxobait. Finantzatutako talde-orduak gora egin dute, nahiz eta ikasleen kopuruak behera egin, ikasle gutxiago baitago gelako; 4.000 talde-ordu gehiago dago aurten.

5.- Galde-erreguak.

Lourdes Isartek hartu du hitza eta bi puntu hauei buruz aritu da:

1.- Lehenengoa, HOBE egitasmoa. Interesgarria oso da ekimena, baina jauzi izugarria ematen ari da HABE denbora gutxian. Egiatzatze gintza eta ebaluazioa pisu eta lan-bolumen ikaragarria hartzen ari dira, eta horrek inpaktu izugarria du gizarteari begira. Probak egiten ari dira ia azterketa errealekin, eta ikusten da bide bat badagoela hor joratzeko, eta tentu handiz ibili behar da helburuak ezartzerakoan eta publikoari helarazterakoan, errealista izan behar delako, eta lanean jardun arren horretan, denbora behar delako.

Teknologia aldetik ere bide luzea dago egiteko, baina hurrengo urtetik aurrera aparteko deialdiak egingo dira: HABEko deialdia ere piska bat lehenago izango da, eta izango diren beste deialdi guztiak ere gehitu behar dira, EGAREN ordezkia den C1 maila hori ere bai; hortaz, bolumen izugarria. Gauza asko, erronka asko eta jende gutxi. Ahaleginak egiten ari dira giza baliabideak sendotzeko, baina prestakuntza garrantzitsua da, HABE horretan erreferentia izan da beti, eta hori berreskuratu egin behar da. Prestakuntza ez bakarrik euskaltegiatako irakasleei zuzendua, baita HABEra datozen langile guztiei ere; horiek ere prestatu egin behar dira, irizpide batzuen arabera antolatu, norabide bateratuan arraun egin dezaten denek. Ataleko langile gehienek izenean, denbora falta dutela adierazi du. Pentsatzen dute ea ez ote litzatekeen beharrezko egiaztatze-gintza- eta ebaluazio-zerbitzu propioa, zeren gero eta abiadura handiagoa hartzen ari baitira. Jendea prestutasun handiz dago, baina erabakiak hartu behar dira, gauzak arrapaladan etortzen direlako, eta horiei aurre egiteko denbora behar da; planteamendu horietan doitu egin behar da.

2.- Bigarrenik, COVIDaren eraginpean, hainbat faktoreren ondorioz, deialdiekin aurrera egitea erabaki zuten, eta ekainera aurreratu zen deialdia. Gauza asko gertatu ziren eta erabakiak hartu beharra zegoen, baina tentuz ibiliz betiere. Adibidez, euskaltegien ahozko emaitzak (euskaltegiaren nota) baliokidetzak distortsio bat sortu zuen mailarekiko. Orain C1 mailan profil askotako jendea dago adinaren aldetik, lehen EGARA zihoazena integratu egin behar dira, eta beraz, irizpide garbi batzuk eduki nahi badira, batasun bat izan behar da, eta markatzen diren helburuekin ere tentuz ibili beharra dago.

HABEren zuzendari nagusiak erantzun dio Lourdes Isarti:

1.- Lehen gaiari helduz, HABEko zenbait ataletan, Didaktika atalean esaterako, ez dago hainbesteko presiorik: materialgintzan dihardutenak materialak prestatzen dabilta, beren martxan, materialak egiten. Prestakuntzan dabiltazenek ere ez dute hainbesteko presiorik. Baina egiaztatze-gintzan (langile gehienek atal horretan daude) egutegi oso zehatzak daude, eta ondorioz, presioa nabarmena da, hurrengo urterako data batzuk ezarriak eta boletinean argitaratuak daude, eta data horiek bete egin behar dira. Data horietan bi azterketa egin behar dira deialdiko, udaberrian bat eta udazkenean bestea, eta azterketaldi bakoitzak bere ezaugarriak eta mugarriak ditu (azterketa-probak, emaitzak, erreklamazioak,...). Adibidez, erreklamazioak jartzeko eta erantzuteko epeak beti berdinak dira, ehun erreklamazio egon edo zortzirehun egon, eta horrek presio nabarmena dakar. Gainera azterketa-ereduak egin behar dira martxorako eta urrirako.

2.- Bigarren gaiari dagokionez, hemen abantaila da langileek badakitela noizko egin behar diren azterketak, baina presioa hor ere badago. HABEn gaiari heldu behar zaio, baina erabakiak beti hartzen dira alde onak eta txarrak ikusita. Gai honetan erabaki zuten bi deialdietan aurrera egitea, neurriak eta epeak beteta, eta hartzen diren erabakiak askotan beste batzuen kaltetan ere hartzen dira. HABEK bazekien kexak ere egon zitezkeela eta egon ere egon ziren, bai erakundearen barruan eta bai kanpoan ere, baina beste batzuk pozik geratu dira hartutako erabakiekin.

HABEko Hizkuntzaren Didaktika zerbitzuko ordezkari Lourdes Isartek erantzun du aipatutako mugarri horiek interesgarriak direla, baina errealista izan beharra dagoela. Gaineratu du, halaber, oso garrantzitsua dela HABEren barruko komunikazioa, fluxu horrek arina izan behar duela eragile eta teknikari guztien artean, eta orain inoiz baino gehiago.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

HABEren zuzendari nagusiak hartu du berriz hitza. Onartu du zuzendaritzatik beti egiten dela presioa gehiago egiteko, oreka bilatu beharra dagoela, eta egin ezin daitekeen ezer ez dela inoiz planteatu. Ebaluazio-atalak inoiz ez ditu izan orain dituen giza baliabideak, nahiz eta egia den, bestalde, inoiz ez dela horrelako lan-zamarik izan lanpostuetan.

Jarraian, batzordeburuak hartu du hitza. Aitortu du, bai HABEri begira eta bai kanpora begira edo gizarteari begira ere, ez dakiela zein egoeratan gauden, zer bizitzen ari garen, eta beraiek presio handia ezarri zutela, jokoan zegoena gehiago zelako sortu zitezkeen estutasunak baino. Inork ez zekien pandemiak zenbat denbora iraun behar zuen, noiz amaituko zen, ekonomia nola errekuperatuko zen. Inork ez zekien zer zetorren eta onena olatua ez pasatzen uztea zela erabaki zuten, horregatik bai berak, sailburuak, eta bai sailburuordeak ere, presioa egin zuten sailean ikastaroei nola edo hala eutsi behar zitzaizela defendatzeko eta presentzialtasuna babesteko, jakinda ez zegoela ziurtatzerik zer gertatuko zen. Adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetako eta beste administrazioetako lan-deialdiekin ez zegoen argi zer gertatuko zen. Azkenean, esan bezala, olatua pasatzen ez uztea erabaki zuten, beste deialdiekin zer gertatuko zen jakin ez arren. Larriago zirudien deialdiak ez egitea, jakinda edozein kasutan euskaratze-prozesuek kalte bat izango zutela eta kalte hori ahalik eta txikiena izaten saiatu behar zela. Oso kontziente dira egin duten presioaz, horren jakitun ziren, baina gauzak ongi atera dira, eta eskertu die HABEko langileei, euskaltegiei, eta irakasle eta arduradunei, bai bere izenean eta bai sailburuordearenean ere, egindako lana eta esfortzua.

Ondoren, Araba eta Bizkaiko udal-euskaltegi-tako irakasleen ordezkari Joseba Urriz Goikoetxea jaunak hitz egin du:

“Azken urteetan, euskaltegi-tako giza baliabideen kudeaketaz arduratzen garenok arazo larri bati egin behar izan diogu aurre: euskaltegi-tan arazoak ditugu lan egiteko prest dauden langileak topatzeko.

Gainera, bizi dugun osasun-krisiaren ondorioz, egoerak txarrera egin du nabarmen; langileria eta kontratazioa handitu ez bada ere, langilea etxean itxialdian geratu denez (gaixorik egoteagatik edo beste arrazoi batzuegatik), ordezkoen kopurua handitu egin da.

Badakigu arazoa ez dela euskaltegi-ena –udal-euskaltegi-ena – bakarrik. Badakigu hezkuntzan, osasungintzan eta beste zenbait arlotan antzeko arazoei egin behar izan dietela aurre. Baina uste dut gure egoera larriagoa dela, gure sektoretik aipatutako beste sektore horietara doalako jendea. Guda horretan gu ateratzen gara galtzaile. Adibide bat ematearren: udal-euskaltegi-ean jardun osoko kontratua (urritik ekainera) duten batzuek kontratu hori bertan behera utzi dute eta heren bateko jarduna betetzera joan dira hezkuntzara.

Adibidea baino ez da eta gogorarazi nahi dizuet behin baino gehiagotan adierazi izan dela beste batzorde batzuetan langileen % 10 inguru berria dela urtero (batez ere euskaltegi pribatuetan eta euskaltegi handietan). Gutxi gorabeherako kopurua da, euskaltegi guztietan egoera ez baita berdina. Horrek esan nahi du, urtearen arabera, langileen heren batek “sartu-irten” bat egiten duela sistema honetan. Bide batez azpimarratu nahiko nuke heren hau gaztea dela, zaharrok euskaltegi-tan geratzen gara. Bizpahiru urterik behin langileria-aren prestakuntzan ahalegintzea (gero beste sektore batera joateko) nekagarria da, eta erakundearen desegonkortasunaren eragilea.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Beste alde batetik, Udal Euskaltegien kasuan bada beste arazo bat izangaiak uxatzen dituen: 4HE. Ez dut dudatan jarriko 4HE eskatu behar den ala ez, baina argi dago gure euskaltegietan 4HE. eskatzeak eta institutuko edo H. Eskolako euskara-irakasleei ez eskatzeak irakaslegaiak uxatzen dituela.

Finean, susmoa dugu eskaintzen dugunak ez diela merezi eta, horren ondorioz, batzuetan, ikasleak “harrapatzen” baino gehiago, irakasleak harrapatzen ibiltzen garelara euskaltegiko ateetan.

Egoera honek guztiak galdera asko eginarazi beharko lizkiguke hemen jesarrita gauden guztioi:

- Zergatik ez du jendeak euskalduntzen eta alfabetatzen lan egin nahi?

- Zer irudi dugu euskaltegiok gizartean? Egia aitortzera, euskaltegietan lan egiten dugunok ez gara sentitzen, erakunde bezala, gure gizartean txarto ikusiak; areago, esango nuke euskaltegiak, “figura/erakunde” moduan, estimatuak garelara. Ematen du sozialki behintzat ondo dagoela kontua. Baina laneko ikuspegitik hitz eginda, lan egiteari buruz ari garelarik, zein da sektoreak duen estima?

- Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa aurreratuaren gidak planteatzen duenari jarraikiz, zera galdetu nahiko nuke: batzorde honek zer aurreikuspen egiten du epe ertain eta luzera begira sektoreaz? Euskalduntzearen eta alfabetatzearen sektorea urte askoan izango da beharrezkoa. Ez litzateke hausnarketa bat egin beharko sektore honi buruz sektoreko eragileekin?

- Prozesua luzea izango dela onartuta, ez luke HABEk hausnartu beharko nola elikatuko duen sektorea? Ala, uste dugu HABEk ez duela zereginik kontu honetan?

Badakigu neurriak hartu direla. Zain gaude LKS enpresak zer esango digun (nahiz eta uste dugun helburua, ikerketaren helburua, beste bat zela); txalogarria da, era berean, HABEk, Ejk eta EHUK, elkarrekin, teknikariak lortzeko sortu duten masterra (nahiz eta uste dudana, zoritxarrez, euskara-irakasle gutxi aterako dela hortik)... Alegia, esango genuke ekimenak ez duela arazoa konponduko.

Horren aurrean eskaera bi egin nahiko genituzke:

1. Bata, benetan premiazkoa: ikusita udal-euskaltegietan lan-poltsa sortzeak zer gauza gutxitarako balio duen (izangai berdina poltsa guztietan, poltsa egin eta hilabetera agortuta...) eta zelako arazoak dauzkagun jendea erakartzeko, eskatu nahiko genioke HABEri lan-poltsa bat sortzeko. Iruditzen zaigu HABEk eta EJK guk gizartean ez dugun oihartzuna izan dezaketela. Saiatu gara hainbatetan eta ez dugu lortzen. Ez dadila geratu kontua saiakerarik egin gabe.

2. Bestea, ez hain premiazkoa, baina bai serioagoa. Ez dago dudarik euskaltegiak oso estrategikoak direla euskararen normalizazioan; nik esango nuke funtsezkoak direla. Uste dut sektorearen (alfabetatzearen eta euskalduntzearen) birformulazio baten beharra dagoela, irudiari eta funtzioari buruz ari garelarik. Hausnarketa batetik abiatu behar dugu sektoreko guztiok jakin dezagun nolakoa izango den sektorea hurrengo urteetan. Uste dugu Zuzendaritza Batzorde honek beste batzorde bat bultzatu beharko lukeela (edo dagoeneko eratuta dagoen batzorde bat “erabili”) sektorea berriro bidean jartzeko eta indartsu bilakatzeko.

Udal-euskaltegien egoera agonikoa da eta laguntza behar dute, eta pandemiaren egoerak are gehiago indartu du lehendik zegoen joera. Salbuespenak egongo dira noski, euskaltegi guztiak ez baitira berdinak, baina egoera agonikoa da”.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Miren Dobaran sailburuordeak erantzun dio Joseba Urrizi. Irakasleen ingurukoak erantzun nahi ditu. Batzar teknikoetan ere maiz esan dena aipatu du, alegia, irakasle faltaren arazoa ez duela COVIDak sortu, lehen ere bazegoela, baita Hezkuntzan ere, ez bakarrik HABEn. Arazo handiak daude hizkuntza irakasleak lortzeko, COVIDa baino lehenagotik. Jakina den moduan, hizkuntza-irakasle izateko filologia ikasi behar da, eta filologietara sartzeko batxilergoan ikasleek letretatik jo behar dute. Gero eta ikasle gutxiagok egiten dute hautu hori, izan ere, gehienek, letretatik doazen gehienek, gizarte-zientzietako ikasketak aukeratzen dituztelako unibertsitatean, aukera gehiago dituztenez ondoren lan-munduan (horixe gertatzen da, adibidez, Deustuko Unibertsitatean); beraz, euskal ikasketetan ez dago ikaslerik. Ez da euskaltegien arazoa bakarrik; hizkuntza guztietan gertatzen den arazoa da. Orientatzaileek ere hala diote. Irakaslerik ez badago, HABEK hezi behar ditu eta 4HE eskatu.

Bestalde, euskaltegi publikoetako soldatak eta DBHko euskal irakasleen soldatak antzekoak dira, eta beraz, euskara-irakaslea ez dago gaizki euskaltegi batean lanean. HABEK Unibertsitateko Masterra jarri du abian, ikasleak euskara-irakasle izatera bideratu nahi direlako. Lehen errazago etortzen ziren, orain ikasleek ez dute bere burua hizkuntza-irakasle ikusten (orientatzaileek ere esaten dute hori), beste estimulu batzuk dituzte eta beste irtenbide batzuk bilatzen dituzte.

Joseba Urrizek dio euskaltegiek ezin dutela eskaini Hezkuntzak eskaintzen duena. Ikaskuntza modu batekoa da eta helduen ikaskuntza beste modu batekoa; DBH eta batxilergoko ikasleekin lan egitea atseginagoa da bere ustez. Gainera, euskaltegietan lan eginez gero, zailagoa da familia eta lana uztartzea, klase asko arratsaldeko azken orduan izaten direlako eta gaueko hamarretan bukatzen direlako (hamar irakasle dituzte 20etatik 22ak arte klaseak ematen). Hori Hezkuntzan ez da gertatzen. Euskaltegiek eskaintzen dutena ez da erakargarria. Biologo bat ere badute irakasle-lanetan, C1 maila lortu zuelako. Egoeraren larritasunaren adierazle da hori.

Ondoren, Joseba Arbelaitzek hartu du hitza, eta gertuko adibide bat komentatu du, azaltzeko euskaltegietan irakasle-lanetan jardun dutenek badutela aitortza soziala (25 urtez euskaltegian Euskara irakasten aritutako irakaslearen omenez Kurasaalean egindako ekitaldia ekarri du gogora; Lehendakaria ere bertan izan zen) baina lan horrek hutsaren hurrengo balio duela administrazioan edo hizkuntza-eskoletan, bertako lanpostu batera aurkeztuz gero, euskaltegietan klaseak ematen egindako urteek edo lan-esperientziak ez dutelako inolako baliorik edo puntuaziorik (omendutako irakasle horren beraren kasua aipatuz berriz ere). Gainera, euskaltegietan hainbat urtez irakasle-lanetan aritu diren irakasleek ez dute inoiz aukerarik izan HABEn teknikari aritzeko, eta ondorioz, giza kapitala galtzen ari da HABE.

Miren Dobaranek azaldu du lanean dihardutela aitortza hori egiteko, puntuazio horiek balioa izan dezaten administrazioetan. Titulazioen arabera aztertu behar da, ez delako berdin helduekin aritzea edo haurrekin aritzea, baina gai hori Mahaian aztertzen ari dira. Ibilbide profesional bat sortu beharraz hitz egin du, zirkuito bat sortu beharraz, harrera profesionala egiteko. Argi dago, profesional gazte on bat harrapatu arren eta soldata on bat eskaini arren, pertsona hori ez dela lanpostu horretan betiko egongo: euskara irakasle izango da, gero HABEn teknikari, ondoren trebatzaile edo euskara-planetako arduradun arlo sozioekonomikoan. Xede horrekin ere jarri da abian Unibertsitateko Masterra, masterdun batek egin dezakeelako zirkuito profesional hori, ibilbide profesional hori.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

HABEko zuzendari nagusiak berretsi egin du sailburuordeak esandakoa, eta gaineratu du orain zenbait kontu zailagoak direla lehen baino: adibidez, lehen, garai batean, euskaltegietako irakasleak HABEra etortzen ziren, baina Euskal Funtzio Publikoaren Legea 1989an onartu zen eta harrezkero ezin da horrelakorik egin. Sindikatuekin ere arazoak daude. Udaletako langileak Jaurilaritzan sartzeko bidea erraztu behar da. EAEko irakasleak HABEra etortzeko aukera lortu dute, kostata, baina Eusko Jaurilaritza kanpotik datozenek (Udaletatik, Estatuko administrazioetatik,...) zailagoa dute, mugatua dago joan-eterri hori. Joan-eterri hori haiei ere zabaltzea aztertu liteke, baina horretarako hainbat alderdirekin lan egin beharra dago, sindikatuekin, besteak beste. Beste gai bat da lan-poltsak sortzearena. Ez da urratsik egin, baina HABE bide hori jorratzen hasiko da.

Joseba Urrizek hartu du berriz hitza eta galdetu du ea aurreratzerik badagoen, Aldundiak presente daudenez gero, Euskara ikasteko doakotasunari buruzko dirulaguntzen irizpideak argitaratuko diren ala ez.

Gai horri helduz, Arabako Aldundiaren ordezkari Lexuri Ugartek esan du aurten, oraindik ere 2020an gaudelarik, Araban euskaltegiak, Gasteizko Udala eta Aldundia bera horretan ari direla lanean, eta Eusko Jaurilaritzak ere jaso duela euren proposamena.

HABEren zuzendari nagusiak baieztatu egin du Lexuri Ugartek esandakoa, atzo Josemi Reguerorekin (IKA euskaltegia) bildu eta proposamen horri buruz mintzatu zirelako. Bihar Gasteizko Udalarekin bilera egingo dute, gai beraren inguruan. Euskara-ikasketen doakotasunaren inguruan HABEK adierazi du B2 maila arteko doakotasuna defendatzen duela Eusko Jaurilaritzak, eta legealdi honen amaierarako C1ekoa ere bai, 16-30 urte bitarteko gazteen artean. Aginduan lerro nagusiak aipatzen dira. Euskaltegiek beren ebaluazio-jarduerak planifikatuko dituzte eta sistemara igoko dituzte, ikuskatu ditzaten. Euskaltegiek egindakoaren arabera, HABEK dirulaguntzak emango dizkie ikasleei. HABEK dirulaguntzetarako modulu batzuk ditu ezarrita, eta euskaltegiek hor adieraziko dituzte ebidentziak. Esan beharra dago HABEK Udal legeak finkatutakoaren barruan jokatzeko duela, eta lege hori oinarri hartuta udalak ere hasi direla dirulaguntzak ematen, ikasleek ikasgelara egiten duten asistentzia bermatuz gero. Udal txiki batzuek ez dute erabili eskumen hori, baina oro har, gehienek erabili dute.

Aurten ere, aurreko urteetan bezala, udalei galdetu zaie zer dirulaguntza eman dieten ikasleei. HABEK diruz lagundu dituen ikasleen zerrenda udalei bidali die (bakoitzari bertan erroldatutako ikasleena), ondoren udalek adieraz dezaten ea dirulaguntza eman dieten. Orain arte udal batzuek ez dute informazio hori eman, datu pertsonalen babeserako legean oinarrituta, baina aurten ikasleek HABEri informazio hori jasotzeko baimena eman diotela azaldu zaie udalei. Udal batzuek informazio hori eman dute, beste batzuek HABEri eskatu diote dirulaguntza eman dezala lehenik, eta gero berek osatuko dutela.

Udalek eta aldundiek eskumena dute horretan, eta aldundi bakoitzak bere sistema propioa du. Esan bezala, HABEren planteamendua da udalek, aldundiek eta HABEK ematen duten diruarekin B2 maila arteko doakotasuna bermatzea, baldintza batzuk jarritz, eta legealdi honen amaierarako C1 maila arteko doakotasuna bermatzea 16-30 urtekoen artean.

Joseba Urrizek adierazi du hori ez dela berak egin nahi zuen galdera, eta berriz ere planteatu du. Bizkaiko Aldundiak "Eskura txartela" izeneko bonoa ematen du, ikasleak hurrengo urteko matrikulazioa ordain dezan. HABEK ematen duen dirulaguntza beste modu batekoa da. Hori jakin badaki; jakin nahi

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

duena da ea hemendik aurrera HABEk berak egingo dituen kontuak aldundiekin, haien dirua bilduko duen, eta gero ikasleei itzuliko zaien ordaindutako dirua, edo Bizkaian egiten dena egingo den, alegia, ikasleei bono bat ematearena, prozesua bukatu eta nahitaez doakoa atera dakien, bono horren dirua horretarako izanik –noski–, ez beste ezertarako.

Jokin Azkuek erantzun dio berriz. Saiakerak egin dira udalekin eta aldundiekin, ikasleek ez dezaten dirua hiru lekutan eskatu. Lurralde bakoitzak bere sistema erabiltzen du. Gipuzkoako Foru Aldundiak leihatilaren kontzeptua kendu du: HABEri dirulaguntza eskatu dionak Aldundiari eskatu balio bezala jokutzen du, eta horrela Aldundiak HABEk emandako dirulaguntza osatzen du, eta HABE entitate laguntzaile moduan aritzen da dirulaguntzen kudeaketan. Aldundi bakoitzak bere kudeaketa propioa du eta HABEk horren arabera jokutzen du. Sistema egokiago bat jartzeko adostasuna behar da.

Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari Xabier Arauzo Uriarte izan da galde eta erreguen txanda erabili duen azkena. Bizkaiko euskaltegi guztiekin elkartu ziren eta akta moduko bat jaso zuten; haien eskakizunak HPSra bidali ziren, besteak beste, eta bertan, ordezkapenak egiteko oztopoak edota euskaltegien mugak azaltzen ziren. Orduan ez zen ohartu euskaltegien agoniaz, baina kezagarria da sektorearen irakurketa. Euskararen arloko beste lanbide batzuetara ere hedatu daiteke egoera larri hori. Euskara-teknikarienera kasu. Bere ibilbide profesionalean ikusi du profesional batzuek alde egiten dutela berehala lanpostuetatik, euskara-teknikariek adibidez, eta joera da zerbitzu handietan metatzea; herritarrekin lan egiten duten profesionalek alde egiten dute, eta hori bai Osakidetzan eta bai euskaltegietan ere gertatzen da. Ez daki diagnostikorik egin behar ote den, baina Bizkaian euskaltegien sare zabal eta indartsu bat nahiko luke berak.

Ondoren, hasieran aipatutako gaietaz buruz hitz egin du. Galdetu du zein den HABEk ebaluazioan eta egiaztatze gintzan duen ikuspegia. Izan ere, arestian esan den moduan, HABEren barruan atal horrek gero eta lan-karga handiagoa du, baina “salbuespen dekretuak” (47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatze salbuesteko dena) unibertsitatean euskaraz ikasten duten ikasle askori euskara-agiria aitortzen die, eta beraz, pentsa liteke ebaluazioak behera egingo duela.

HABEren zuzendari nagusiak erantzun dio: salbuespen-dekretu horrek B2 mailaren pareko ikasle askori eragiten die, nahiz eta zaila den dekretuaren eragina zein den neurtzea. Nabarmena da, halere, B2 eta C1 mailako azterketek izan duten gorakada. Beraz, esan daiteke salbuespen-dekretuak beheko maileri eragiten diela. Ikasleek euskaltegietan matrikulatzeko duten arrazoia eta motibazioari buruz, LKSren lanen ondorioek diote ikasleen % 55-60k titulu bat atera nahi duelako doala euskaltegira, lan-eskaintza gehiagotara aurkeztu ahal izateko. C2 mailako azterketen kopuruak ere igo egin dira, baina igoera apalagoa da kasu honetan, ez baita izan B2 eta C1 mailek izan duten gorakada nabarmen hori. Hala ere, gazteen artean C2 mailak izan duen gorakada ere nabarmena izan da.

Beste gairik ezean, bertaratutakoak agurtu eta etortzeagatik eskerrak eman ondoren, batzordeburuak bukatutzat eman du bilera.